



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

**EUSKO JAURLARITZA**



Organismo Autónomo

**GOBIERNO VASCO**

# Berdintasun **P**olitika **P**ublikoen Kalitate Estandarrak

## TESTUINGURUA ETA XEDEA

Kontuan harturik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari buruz egindako azken ebaluazioak (2015ean), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak Lantalde Tekniko bat sortu zuen. Honen helburua da emakumeen eta gizonen berdintasun-politiken eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea da, kalitate-estandarrak ezarriz eta erakundeen arteko koordinazioa hobetuz, batez ere tokiko eremuari dagokionez. Edonola ere, txosten honek soilik kalitate estandarrak barne hartzen du, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko partea eta ezartzeko partea prozesuko bigarren etapa batean landuko baita.



## PROZESUARI BURUZ

Bi dokumentu izan dira lanketa honen oinarria eta abiapuntua. Batetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Eta bestetik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak diseinatutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioaren gobernantza galdetegia.

Kalitate estandarrak ezartzea ahalbidetu duen lan-taldea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea osatzen duten erakundeetako honako berdintasunerako teknikariek osatu dute:

- Emakunde (prozesuko koordinatzailea)
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- EUDEL
- Galdakaoko Udala

Halaber, beste bi instituziok parte hartu dute kontrasteetan ekarpenak eginez:

- Vitoria-Gasteizko Udala
- Urola-Garaia Mankomunitatea



Prozesuak 6 hilabeteko iraupena izan du.

## IKUSPUNTUARI BURUZ

EAE osoan erabiliko diren berdintasun politiken publikoen kalitate estandarrak ezartzeko orduan, aurre egin behar izan den erronka handiena izan da [berdintasuneko politika publikoetan kalitate gisa zer ulertzen den](#) definitzea. Hortik sortu den definizioa eta, ondorioz, zehazten den jomuga ondorengoa da:

Kalitatea berdintasun politika publikoetan da: *sexua dela-eta gizarteko desberdintasun estrukturalari aurre eginez eta emakumeen askatasuna, autonomia eta bizi kalitatea ziurtatuz, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna ahal den arinen lortzea helburu duten neurri, arau, prozedura, tresna eta jardueren funtsezko ezaugarrien multzoa.*

Horrela, honako proposamena berdintasun politika publikoek duten ikuspuntu honetan oinarritzen da. Kontua ez da minimoak edo maximoak ezartzea, baizik eta berdintasun

politikek (desirako) eragina ahalik eta handiena izateko beharrezkoak diren baldintza sorta zehaztea.

## NOLA AURKEZTEN DIRA KALITATE ESTANDARRAK

Argi utzi behar den bigarren elementua da dokumentu honen edukia nola multzokatzen den. Kalitate estandarrak [bi bloke](#) handitan sailkatzen dira:



- I. Egiturazko baldintzak. Berdintasuneko politika publiko egokiak diseinatu, inplementatu eta garatzeko beharrezkoak diren baldintzen multzoa.
- II. Genero ikuspegia lan prozeduretan. Administrazioak egiten dituen ekintza eta prozeduretan genero ikuspegia zeharkako modu batean txertatzean datza.

Inportantea da ulertzea **egiturazko baldintzak** nahitaezkoak direla lan prozeduretan genero-ikuspegia ondo garatu ahal izateko. Egiturazko baldintzak dira berdintasuneko politikak inplementatzeko oinarriak eta zimenduak. Horregatik, lehen blokeak berebiziko garrantzia du.

Bi blokeek [aldagai batzuk](#) dituzte haien baitan:

Egiturazko baldintzak (6 aldagai)	Genero ikuspegia lan prozeduretan (7 aldagai)
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko administrazio-unitateak	Genero-ikuspegia duten aurrekontuak, Estatistikak eta azterlanak
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plangintza	Berdintasunaren arloko prestakuntza
Berariazko berdintasunerako araudia	Enplegu publikorako sarbidea, hornidura eta mailaz igotzea
Berdintasunerako barne-planak	Berdintasuna arauetan
Berdintasunerako koordinazio-egiturak	Berdintasun-klausulak diru-laguntza eta kontratu publikoetan
Elkarrizketa sozialerako organoak <sup>1</sup>	Genero-ikuspegia sektoreko eta zeharkako planetan

<sup>1</sup> Elkarrizketa-sozialerako organoei buruz hitz egiten dugunean ez gara sindikatuez eta enpresariez bakarrik ari.

	
<p><b>OINARRIZKO BALDINTZAK.</b> Aldagai horiek dira edozein berdintasun politika garatzeko oinarriak. Etxe baten zimenduak bezalakoak dira.</p>	<p><b>BALDINTZA OSAGARRIAK.</b> Kalitatezko berdintasun politika publikoak garatzeko guztiz beharrezkoak diren aldagaiak dira, eta oinarrizko baldintzen menpe daude. Etxeen teilatua bezalakoak dira: beharrezkoak, baina zimendu barik ez dago etxerik.</p>

Aldagai horietako bakoitzak bere baitan baldintza multzo bat du, *checklist* erara aurkezten direnak. Baldintza guztien ondoan lauki bat agertuko da non erakunde bakoitzak, bere maila edozein dela ere, markatu ahal izango dituen betetzen dituenak. Horrela, erraz ikus daiteke zeintzuk diren ongien betetzen dituen puntuak eta zeinetan atentzio gehiago jarri behar den.

Zerrenda bakoitzaren bukaeran ehunekoaren (%) sinbologia azaltzen da. Horrela, *ehunekoa kalkulatu da*, kalitate estandarrak zein neurritan betetzen diren ikusi ahal izateko.<sup>2</sup>

Dokumentuaren bukaeran, lanerako *fitxa* bat aurkituko duzue non aldagai guztiak agertzen diren eta bakoitzari dagokion ehunekoa jaso dezakezuen. Bertan iradokizunak idazteko lekua izango duzue, erakunde bakoitzak berdintasun politikak hobetzeko bere gogoetak bertan jasotzeko.

<sup>2</sup> Horretarako, dauden aldagaien proportzioa erabiltzen da. Demagun 5 aldagai ditugula. %100 5 aldagaiak dira, eta 2, %40. Era berean, kontuan izan behar da instituzio guztiek ez dutela zertan aldagai guztiak bete. Esaterako, udalerrri txikiak ez dute aldagai guztiekin ehunekoa kalkulatu behar, baizik eta beraien udal eskumenen arabera garatu beharko dituzten aldagai horiekin.



## EGITURAZKO BALDINTZAK

### EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO ADMINISTRAZIO-UNITATEAK

Zer suposatzen du?

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko organo edo administrazio-unitate bat izatea.	
Soilik berdintasunean jardungo duten teknikariak izatea.	
Berdintasun-teknikariaren plaza Lanpostu Zerrendetan (LPZ) goi mailako teknikarien multzoan sartzea.	
Berdintasun-teknikarien plazan berdintasunari buruzko berariazko prestakuntza betekizunak txertatzea.	
Berdintasunerako organoa edo administrazio-unitatea erakundearen hierarkiaren maila goreneko egiturari (presidentetza, alkatetza edo baliokidea) atxikitzea.	
Erakundearen departamentuetan berdintasun-unitateak – berariazkoak eta espezializatuak – izatea Eusko Jaurlaritzan, foru aldundietan eta hiriburuetako udaletan.	
Berdintasunerako organo / administrazio-unitatera bideratutako aurrekontua izatea erakundearen.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



## EGITURAZKO BALDINTZAK

### EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA

Zer suposatzen du?

Berdintasunerako plana edo programa izatea, 4/2005 Legearen 15. artikulua araberak.	
Indarreko berdintasunerako plana edo programa egin aurretik, diagnostiko bat eta/edo aurreko planaren ebaluazio bat egin izatea.	
Inplikaturik dauden arlo guztien parte-hartze politikoa izatea berdintasunerako plana edo programa egitean.	
Inplikaturik dauden arlo guztien parte-hartze teknikoa izatea berdintasunerako plana edo programa egitean.	
Emakumeen elkarteek eta kolektibo feministek parte hartzeko prozesu edo mekanismoak txertatzea indarreko berdintasunerako plana edo programa egitean.	
Indarreko berdintasunerako planak edo programak aurrekontua izatea.	
Indarreko berdintasunerako planak edo programak egutegia izatea.	
Indarreko berdintasunerako planek edo programak jarraipena egiteko sistema bat izatea.	
Indarreko berdintasunerako planak edo programak ebaluazioa egiteko sistema bat izatea.	
Indarreko berdintasunerako planaren edo programaren oinarritzko helburuak, ekintzak eta adierazleak erakundearen legegintzaldiko plangintza estrategikoan edo baliokideetan txertatzea.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ...</b>	



## EGITURAZKO BALDINTZAK

### BERARIAZKO BERDINTASUNERAKO ARAUDIA

Zer suposatzen du?

Emakume eta gizonen berdintasunerako berariazko araudia izatea.

**Kalitate estandarren betetze maila % ...**





## EGITURAZKO BALDINTZAK

### BERDINTASUNERAKO BARNE PLANAK

#### Zer suposatzen du?

Indarreko berdintasunerako barne-plan bat izatea, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren zazpigarren xedapen gehigarrian jasotakoa betetzea.	
Indarreko barne-plana egin aurretik, diagnostiko bat eta/edo aurreko planaren ebaluazio bat egin izatea.	
Berdintasunerako barne-planak aurrekontua izatea.	
Berdintasunerako barne-planak egutegia izatea.	
Berdintasunerako barne-planak jarraipena egiteko sistema bat izatea.	
Funtzio publikoaren arloan eskuduna den organoak, edo horren baliokideak, berdintasunerako barne-planaren erantzukizuna bere gain hartzea.	
Berdintasunerako plangintzaren oinarrizko helburuak, ekintzak eta adierazleak kudeaketa publiko aurreratuko plangintzetan edo antzeko tresna komunitan txertatzea, egotekotan.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



### Zer suposatzen du?

Departamentuarterko egitura politiko eta tekniko bat izatea berdintasunerako politiken berariazko koordinazioa egiteko.	
Berdintasunerako departamentuarterko koordinazio-egituraren presidentea erakunde hierarkia-maila gorena (presidentea, alkatea edo baliokidea) izatea.	
Departamentu <sup>3</sup> bakoitzak departamentu barruko koordinazio-egitura bat izatea berdintasunerako politikaren jarraipena egiteko, gutxienez Eusko Jaurlaritzan, foru aldundietan eta hiriburuetan.	
Berdintasunerako erakundearterko koordinazio-egitura bat izatea Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan.	
Erakundearterko koordinazio-egitura bat izatea emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan.	
Emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan departamentuarterko koordinazio-egitura bat izatea.	
Berdintasunerako administrazio-unitateek berdintasunerako berariazko erakundearterko koordinazio-egituretan parte hartzea Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien kasuan, eta udalen kasuan horretarako izendatuak baldin badira.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	

\* Koordinazio egitura bat lantalde bat da gai zehatz batzuk sistematikoki jorratzeko. Askotan, erakundea txikia denean, ez zaio ekintza edo gune honi “koordinazio-egitura” deitzen. Hala ere, kasu honetan, deskribatutako betebeharrak betez gero, “koordinazio-egitura” bezala ulertuko da.

<sup>3</sup> Nahiz eta “departamentu” hitza erabili, honek edozein antolakuntza unitateri egiten dio erreferentzia (sailak, arloak edo baliokideak).



## EGITURAZKO BALDINTZAK

### ELKARRIZKETA SOZIALERAKO ORGANOAK

Zer suposatzen du?

Gutxienez berdintasunaren aldeko kolektibo feministek eta emakumeen elkarteek parte hartzeko elkarrizketarako guneak izatea tokiko, foruko eta/edo autonomia-erkidegoko mailan.	
Gutxienez berdintasunaren aldeko kolektibo feministen eta emakumeen elkarten parte-hartzea bermatuko duten prozesuak abiaraztea tokiko, foruko eta/edo autonomia-erkidegoko mailan.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



Zer suposatzen du?

Emakumeen eta gizonen berdintasunera bideratutako berriazko urteko aurrekontua izatea.	
Erakundearen aurrekontuaren genero-inpaktua ebaluatzea aldez aurretik.	
Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatuta aurrera egiteko programa edo proiektuak garatzea.	
Berdintasun-polituketara bideratutako ehunekoa etengabe haztea gutxienez %1era heldu arte.	
Genero-ikuspegia txertatzen duten aurrekontuei buruzko akordio, instrukzio edo jarraibideak onestea.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



## GENERO-IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

### ESTATISTIKAK ETA AZTERLANAK

Zer suposatzen du?

Estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartzea.	
Sexuaren araberako bereizketa modu sistematikoan erabiltzea informazioa ustiatu eta interpretatzeko garaian.	
Sexuaren aldagaia eta beste aldagai batzuk sistematikoki gurutzatzea informazioa ustiatu eta interpretatzeko garaian.	
Genero-arraileak sistematikoki identifikatu eta aztertzea informazioa interpretatzeko garaian.	
Emakumeen eta gizonen arteko aldeak hobeto ezagutzeko aukera ematen duten genero-adierazleak sistematikoki txertatzea.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



## GENERO-IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

### BERDINTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA

Zer suposatzen du?

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-planaz izatea erakundeak.	
Genero-ikuspegia txertatzea berdintasunari buruz ez diren prestakuntza-jardunetan.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



## GENERO-IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

ENPLEGU PUBLIKORAKO SARBIDEA, HORNIDURA ETA MAILAZ IGOTZEA

Zer suposatzen du?

Berdintasun-arloko merezimenduak eta/edo prestakuntza balioestea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin berariazko loturarik ez duten plazei dagozkien hautaketa-prozesuetan.	
Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko edukiak sartzea enplegu publikoaren sarbideko, hornidurako eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan, edozein plazari dagokionez.	
Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak aintzat hartzea eta horiek zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak oinarri orokorretan ezartzea enplegu publikoaren sarbideko, hornidurako eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan.	
Enplegu publikorako sarbideko, hornidurako eta mailaz igotzeko epaimahaietan ordezkartza orekatua izateko klausula txertatzea.	
Funtzio publikoaren arloan eskuduna den pertsonalak hautaketa-epaimahaietan genero-ikuspegia bermatzeko ahalmena izatea.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



## GENERO-IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

### BERDINTASUNA ARAUETAN

Zer suposatzen du?

Generoaren araberako eraginaren aldez aurreko ebaluazioak egiteko jarraibideak edo bestelako instrukzio edo akordioak onestea erakundean.	
Araudiaren genero-eraginaren ebaluazioak sistematikoki egitea.	
Generoaren araberako eraginaren aldez aurreko ebaluazioen jarraipen-sistema baten izatea.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	





## GENERO-IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

### BERDINTASUN KLAUSULAK DIRU-LAGUNTZA ETA KONTRATU PUBLIKOETAN

Zer suposatzen du?

Kontratueta berdintasunerako klausulak sartzea xedean, zehaztapen teknikoetan, balorazio irizpideetan eta administrazio-baldintzetan.	
Kontratazioan berdintasuna lortzeko klausulak txertatzeari buruzko akordioak, instrukzioak edo jarraibideak onestea erakundean.	
Kontratueta berdintasunerako klausulak bete daitezen jarraipen-sistema izatea.	
Kontratueta berdintasunerako klausuletan bildutako irizpideak betetzen ez diren kasuetarako zehapen-mekanismo bat izatea.	
Berdintasunerako klausulak txertatzea diru-laguntzetan (izendunetan, zuzenekoetan eta lehiaketen bidezkoetan).	
Diru-laguntzetan berdintasuna lortzeko klausulak txertatzeari buruzko akordioak, instrukzioak edo jarraibideak onestea erakundean.	
Diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak bete daitezen jarraipen-sistema izatea.	
Diru-laguntzetan berdintasunerako klausuletan bildutako irizpideak betetzen ez diren kasuetarako zehapen-mekanismo bat izatea.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



## GENERO-IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

### GENERO-IKUSPEGIA SEKTOREKO ETA ZEHARKAKO PLANETAN

Zer suposatzen du?

Sektoreko eta zeharkako plan edo plan estrategikoen aurretiazko diagnostikoetan gizonen eta emakumeen arteko aldeak berariaz aztertzea dagokion jardun-eremuan.	
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako helburuak txertatzea sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoetan, egindako diagnostikoari jarraikiz.	
Berdintasunerako ekintzak txertatzea sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoetan.	
Sexuaren araberako aldagaiak eta genero-adierazleak txertatzea sektoreko eta zeharkako plan edo programetako jarraipen- eta ebaluazio-sistemetan.	
Berdintasunerako administrazio-unitateek edo berdintasunean bestelako adituek sektoreko eta zeharkako planak diseinatzen parte hartzea.	
Berdintasunerako administrazio-unitateek edo berdintasunean bestelako adituek sektoreko eta zeharkako planen jarraipena eta ebaluazioa egiten parte hartzea.	
<b>Kalitate estandarren betetze maila % ....</b>	



## EGITURAZKO BALDINTZEN FITXA

Zer neurritan betetzen ari gara kalitate estandarrak?

Berriazko berdintasunerako araudia

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako  
berriazko administrazio-unitateak

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Emakumeen eta gizonen arteko  
berdintasunerako plangintza

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Berdintasunerako koordinazio-egiturak

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Berdintasunerako barne-planak

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Elkarrizketa sozialerako organoak

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?



GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN. FITXA

Zer neurritan betetzen ari gara kalitate estandarrak?

Genero-ikuspegia duten aurrekontuak

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Enplegu publikorako sarbidea,  
hornidura eta mailaz igotzea

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Estatistikak eta azterlanak

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Berdintasuna arauetan

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Berdintasunaren arloko prestakuntza

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Berdintasun klausulak diru-laguntza  
eta kontratu publikoetan

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?



## GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN. FITXA

Zer neurritan betetzen ari gara kalitate estandarrak?

Genero-ikuspegia sektoreko eta zeharkako planetan

% \_\_\_\_\_

Zer egin dezakegu hobetzeko?